

✿ PABLO JIMÉNEZ / MIGUEL BUSTILLO

THE LAST ONE

✂ MARÍA EIRIZ
✚ Itzulpena: Enaitz Vázquez



15'



2-6





+8



OSAGAIK

99 zenbaki-karta (58 x 88 mm.)



Joko-eremuko 6 karta (58 x 88 mm.)



HELBURUA

Izan zaitez azken unera arte eustea lortzen duen jokalaria eta partida irabaziko duzu.

PRESTAKETA

Jarri gehi (+) ikurra duen karta mahaiaren erdigunean eta, haren ondoan, osatu errenkada bat 0 zenbakia duten bi kartak erabiliz. Errenkada horretan, kartak goranzko noranzkoan jarriko dira.

+ Errenkadaren azpian, jarri ken (-) ikurra duen karta eta, haren ondoan, osatu errenkada bat 100 zenbakia duten bi kartak erabiliz. Errenkada horretan, kartak beheranzko noranzkoan jarriko dira.

+ Errenkada



Karta-piloa



- Errenkada



Banatu 10 karta jokatuko duen pertsona bakoitzari eta jarri sobera dauden kartak ahoz beheara karta-piloa osatzeko. Jokalariek karta-pilora joko dute karta bat hartu behar dutenean.

Erabaki ezazue nor hasiko den eta zein izango den txanden noranzkoa.



NOLA JOKATU


Zure txandan, jokatu zure kartetako bat ahoz gora 4 zenbaki-multzoetako batean. Horretarako, honako hau kontuan izan ezazu:

Karta + errenkadako gunen batean jarritz gero, jarritako kartaren zenbakia gunen horretan aurretik ikusgai zegoen kartarena baino handiagoa izan behar da.

Karta - errenkadako gunen batean jarritz gero, jarritako kartaren zenbakia gunen horretan aurretik ikusgai zegoen kartarena baino txikiagoa izan behar da.

ERRENKADEN ERAGINAK

Zure karta jartzean, errenkada horretan ikusgai dauden bi kartak kolore berekoak izatea lortzen baduzu, eragina aktibatuko duzu.



Karta hori jartzeak errenkadaren eragina aktibatuko du

A) + Errenkadaren eragina



Lehenengo karta har ezazu karta-pilotik.

Azpian dagoen kartaren atzealdean agertzen den ikurra eta hartu berri duzun kartan agertzen den ikurra berdinak badira, beste karta bat hartuko duzu.

Kartak hartzen jarrai dezakezu atzealdean ikur ezberdina duen karta bat agertu arte.

B) – Errenkadaren eragina



Txanden ordenari jarraituz, hurrengo jokalaria bere kartarik altuena edo baxuena eskatu iezaiozu, zeuk erabaki zein.

Pertsona horrek bere karta ematea ekidin dezake – errenkadan kolore bereko karta bat jokatzen badu.

Ezin badu hori egin (edo egin nahi ez badu), eskatutako karta eman beharko dizu. Ordea, - errenkadan kolore bereko karta bat jokatzen badu, eragina hurrengo pertsonari pasatuko dio, beti txanden ordenari jarraituz.

Era berean, pertsona horrek bere burua eraginetik babestu dezake. Bestela, aurreko jokalaria eskatzen duen karta eman beharko dio, altuena edo baxuena.

Eragina jokalaria batetik bestera igaroko da norbaitek bere burua babestu ezin duen (edo babestu nahi ez duen) arte. Orduan, aurreko pertsonari eskatutako karta emango dio.

Azkenik, karta eman eta gero, bere txanda jokatuko du.

PARTIDAREN AMAIERA

Txandaren hasieran kartarik jokatu ezin baduzu, partidatik kanpo geratuko zara. Jarri zure kartak mahai gainean ahoz behera, jokatzeko jarraitu ezin duzula adierazteko.

Zure txandan azken karta jokatzeko baduzu eta eskuan kartarik gabe gelditzen bazara, orduan ere partidatik kanpo geratuko zara.

Jokalaria guztiak kanporatuak izan direnean eta eskuan kartarik dituen pertsona bakarrik geratzen denean, pertsona hori izango da irabazlea.

Beste partida bat jokatzeko gogoz? Jokatu ezazue beste behin! Argi daukagu ezin izango duzuela behin bakarrik jokatu.

ESKERRAK

Egileok gure esker ona adierazi nahi dizuegu IES Antonio Gaudíko ikasleei (Víctor, Bruno, Nerea, Paula, Águeda, Iván, Claudia, Andrés, Adri, Jimena, Cecilia...).

Eskerrak Caballeros Templados, Círculo de Isengard, Místicos de Arkat eta LUDO elkarteei.

Eskerrak Iván Lópezi, Charlyri, Helenari, Borjari, Nereari, Lenari eta Gato en el tablero-ri. Eskerrak Raqueli eta Migueli, Sebasi eta Memeri.

Eskerrak gure familiei. Eskerrak Raqueli, Lucasi, Marinari, Carlosi eta Albari.



KAIXO!

Buscalume gara, 2021ean Ourensen sortutako mahai-jokoen argitaletxe txiki bat. Familientzako mahai-joko ederrak eta dibertigarriak egiten ditugu.

Jarrai iezaguzu sare sozialetan eta ikusi zertan gabiltzan. Gainera, batzuetan, zozketak eta opariak egiten ditugu...

+INFO



www.buscalume.com



@buscalume



/Buscalume



@Buscalume